

“Mitxiñogorri”

Txikiak geñiala gu, agertu ei-zan gure etxe inguruan. Eztakigu nundik eta nora ibilia zan etxeratu jakun aurretik. Ez zan beste katuen antzerakoa: basozalea eta igeskorra. Jate orduetan agertzen zan eskaratz inguruan. Beti ixilik eta pixtien antzeko begi biziekaz. Katugorria zan: gorri-orixkia. Orregaitik imini geuntsan izena «Mitxiñogorri». Tigrekuma antzeko baltzunak be baeukazan, eta basakatu antza geiago eukan, etxeetako katueña baiño.

Aregaz ez eguan olgetarik. Laster joaten zan mendizarratuko txaraka-arteetara, eta ango sasi-moltsuetan gordetan zan. Udaran-eta, egun batzuetan ez zan agertzen etxe inguruetara. Goseak artzen ebanean bakarrik etorten zan etxe ingurura.

Katakumak be basozarratuan egiten ebazan. Alakoren batean, katakuma azitxoekaz agertzen zan, eta bitartean jan-billa be bai.

Gure aitagaz egin zan lagun. Iñoz belaun-ganera be igo eutsan gure aita onari. Aparteko biguntasuna eukan berak etxean bizi ziranentzako. Etxekoentzako bakarrik ez-ezik, kanpokoentzako be bai. Erriko tabernan baiño gure etxean jende geiago egoten zan sarritan. Danok ezteukagu alako atsegintasunik.

Gerratea etorri zan gero. Euskotar gudariak bete eben gero etxea. Kañoietakoak ziran, euskaldunak geienak, mutil onak danak guretza-ko. Urkiola-alderuntza joaten ziran goizeko egunsentian kañoiekin, eta illuntzian etorten ziran barriro etxera.

Bilbo aldera joan bear izan eban aitak, auzokoekin batera. Eran-dio aldean egon zan illabete batzuetan. Etxean gelditu geñean gu, anai biok amagaz.

Kanpora joateagaz batera, gure katagorria be nora edo nora joan zan. Mendira-edo, baiña geiigo ez geiñuan ikusi.

Andik denboretara etorri zan aita, pozik barriro bere etxera, gugana; bixkor etorri be, izan be ez zan astuna-ta. Gauberdiak ondo jota egongo ziran atea jo ebanean gure aidak, eta anai gaztea ta biok loak ondo artuta gengoan ogebarruan. Ama ixartu zan lenengo eta gu be ixartu egin geiñuzan, aita maiteari besarkada eta mosu emoteko. Ez da aztutekoa a egun a.

Eta gure katagorria zer? Aita etorri ta egun gitxi barru agertu zan a be barriro etxe-ingurura. Arek be bere modura emon eutsan ongietorria. Baiña kanpoan egon zan artean ez eban bururik erakutsi gure aurrean.

Egunak joan eta egunak etorri, gure mitxiñogorria be zartu egin zan. Mendietako saguak eta pizti txikiak arrapetako legin ez zanean, narrastuta eta erdi tatarraz, betiko etxeratu jakun. Ezagun zan geure etxea eukala beretzakotzat eta geure aita zala bere lagunik audiena: bere esportura joan jakon azkenengo egunak emoten.

Ez eban oiñaze txikia artuko gure aidak alan ikusita, egin ebana egin-bear-izanean ikusi zanean. Zaku baten barruan sartuta emon outson azkena, sufritzen ez ikustearren, eta etxepeko ortuan lurperatu, etxearen kerizpetan.

Danori emon euskun alako biotzeko min bat, baiña gure aita ez zan gitxien senditu ebana.

Urte pilloa joan da ordutik gaurrera. Mundua ziar makiña bat gauza ta jende ikusi ta ezagutzea tokau jaku. Geienak aztu egiten dira, bai. Alan eta guzti be, txikitakoak eta gaztetakoak ez aiñ errex.

Aregaz katugorriagaz, gure umetako «Mitxiñogorri»-agaz gogoratu naz gaur, eta onexek lerrook idatzi dodaz. Ez da, ba, asmauriko ipuin bat; benetako katua izan zana eta benetan jazo zan gertakizuna baiño.

BITAÑO, 1967.